



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2017ko ekaina · 328. alea

TOKIKOM

UNAI LARREATEGI

"Oposizio eraikitzailea egiten jarraituko dugu"





AURKIBIDEA

- 4 Bote prontuan** Unai Larreategi
- 6 Begira** Sua
- 8 Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 12 Argazki bidez** Boxeo jaialdia
- 14 Plazan Bazan** Umeendako jolasak
- 18 Erreportajea** Erbiak birpopulatzeko egitasmoa
- 22 Kirola** Debarroko txapelketa
- 24 Kultura** San Andresko jaiak
- 27 Nondik nora?** Ane Osoro
- 28 Sakonean** *Lagun Maiteak* elkarte
- 30 Zerbitzuak** Zorion-agurrak, hildakoak, esker-ona...

Iritzia

- 3 Neuretik** Juliana Carreira *Sua nire herrialdean*
- 16 Gutunak** Raja Nasir *Ramadan Kareem*
- 16 Gutunak** Nerea Orbea *Harremanak*
- 16 Hausnarketa** Turismoa
- 17 Zir(r)ika** Diabolikoa
- 17 Puntua** Nerea Iñurrieta *Hausnarketak atzerritik*



Pil-pilean herri komunikabidea

Aldizkaria **ASKOREN ARTEAN** egiten dugu. Bidali zure iritzia, informazioa edo proposamenak: aldizkaria@pilpilean.com • 605 706 086

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaldunon Elkarte
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Telefonoa

943 75 13 04
Erredakzioa
Egoitz Unamuno 605 706 086
egoitz@pilpilean.eus

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus
Diseinua Goiena,
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa

Oier Larreategi
Azala Fernan Oregi
Zuzentzailea Leire Ginea

Inprimategia

Gertu Koop.
Banaketa Pil-pilean Ekoizpena
Lege Gordailua: SS-537-2000
Tirada: 2.100 ale

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Abundia



**SORALUZKEKO
UDALA**

Sua nire herrialdean



**Juliana
Carreira
Neves**

2017ko ekainaren 17a izan zatekeen larunbat arrunta, baina ez zen hala izan. Portugalek inoiz ez du ahaztuko gertatu dena; beste behin, sugarrek nire herrialdea kixkali dute. Sutea Escalos Fundeiros inguruan hasi zen (Pedrogao Grande) eta zabaldu zen Figueiro dos Vinhos eta Castanheira de Peran zehar, Leiria distrituan barrena; 64 pertsona hil zituen eta 200 zauritu inguru eragin. Erretako eremuaren hedadura (30 mila hektarea baso, Basoetako Suteen Europako Informazio Sistemak eman dituen datuen arabera), biktima kopurua eta zabaldu den abiadurak kezka sortu dute European eta nazioartean; azken urteotan izan den suterik larrienetakoa izan da-eta.

“Nire iritiz, orain garrantzitsuena ez da errudunak bilatzea, etorkizunean antzeko ezer gerta ez dadin neurriak bideratzea baino”

Suak jende asko “harrapatu” zuen errepidean; testiguen esan dutenaren arabera, infernu haren erdian, biktimak ezustean harrapatu zituen keak, beldurrak eta larritasunak.

Lehenengo eta behin, eskerrak eman nahi nizkieke egunotan egoeraz galdetzeraz nigan hurreratu diren guztiak. Aitortu behar dut, aste guztia pasatu dudala mugikorrari helduta (etengabe familiari deika), eta telebistari eta egunkariei begira,

animozko berbaren bat laga nahian, maite zituzten pertsonak eta horrenbeste hondasun material galdu dituzten pertsonak. Gertakizun horiek direla-eta, kritika ugari egin dizkiote gobernu portugaldarrari; izan ere, azken informazioek diote sutea ekaitz lehorra baino bi ordu lehenago piztu zela, nahiz eta gobernuak esana zuen sua tximista batek piztu zuela, tximistak zuhaitz bat jotzean. Nire iritiz, orain garrantzitsuena ez da errudunak bilatzea, etorkizunean antzeko ezer gerta ez dadin neurriak bideratzea baino: basoak garbitzea, herritarrak euren etxe inguruan garbi izan ditzaten bultzatzea, suteen prebentzioa eta horiei erantzuteko formazioa sustatzea eta berraztertzea /eguneratzea erantzunkizun penalak eta lurraldearen antolaketa. Idatzi hau amaitsu aurretik, eskertu nahi nuke aldizkari honetan idazteko eman didazuen aukera, nahiz eta gertaera etsigarri eta hunkigarri horie inguruan berba egiteko izan.

Unai Larreategi

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO ARGAZKIA: FERNAN OREGI

Unai Larreategi Azurmendi soraluzetarra EH Bilduren Gipuzkoako Arduradun izango da koalizioak birfundazioaren ostean hasi duen ibilbide berrian. Adierazi digunez, kargua onartu du herriko jardunarekin bateragarri izateko baldintzapean. Koalizioaren etorkizunaz eta udalgintzaz jarduteko baliatu dugu elkarrizketa.

Zertan aldatu da EH Bildu birfundazio prozesuaren ostean?

Oso barruko ariketa izan da, barruko egitura birkokatzeke. Orain arteko ereduaren arabera, erabakiak alderdiek hartzen zituzten. Hemendik aurrera EH Bilduk bere espazio propioak antolatuko ditu, eta jendeak EH Bilduren espazioetan parte hartu eta erabaki ahalko du.

Fisikoki ere egoitza propioa izango du EH Bilduk Soraluzen?

Herri bakoitzaren esku egongo da hori zela egin erabakitzea. Herri batzuek dagoeneko badituzte egoitza propioak, baina planteatzen dena da udazkenean herri bakoitzak erabakitzea gai honetan zer egin, dituen aukeren arabera. Soraluzen ere bai.

EH Bilduren ibilbide berrian kargu garrantzitsu bat izango duzu: Gipuzkoako arduradun politikoa. Zein izango dira zure funtzioak?

Nire ardura nagusia da herrialdeko dinamika politikoa planifikatzea eta artikulatzea. Lan potoloa da, eta konplikatua, baina ardura konpartitua izango da. Lehentasunak eta estrategiak zehaztu behar dira, eta konpartituko dugun proiektua definitu.

Zertan aldatuko da EH Bilduren jarduna herrian?

EH Bildu berrituak baldintza hobek emango dizkigu lan dinamikoagoa egiteko herrian bertan ere. Soraluzen benetako EH Bildu sortzeke dago oraindik, eta hori izango da gure erronka.

Datozen bi urteotan udaletxean duen jarrera aldatuko du EH Bilduk?

Oposizio eraikitzailea egin jarraituko dugu. Botoen %46a jaso genuen, ia erdia. Herritarrek gurekiko konfiantza handia erakutsi zuten. Babes-maila hori baliatu behar dugu, oposizioetik bada ere, gure programako proposamenenak aurrera atera daitezen.

Datozen bi urteotan aktiboago jardungo duzue udaletxean?

Gu, barne mailan, oso aktibo ibili gara, laga diguten neurrian. Aukeretan, espazioetan, moduetan ez digute erraztasunik eman ekarpenak egiteko. Dena dela, uste dut guk bide horretan jarraitu behar dugula. Beharbada, jendeari azaldu beharko diogu orain arte azaldu dioguna baino modu argiago baten.

Ze balorazio egiten duzue Udal Gobernuak bi urteotan egin duen jardunaren inguruan?

Jarrera oso defentsiboa hartu dute hasieratik. Berbaz esaten digute gurekin batera egin nahi dituztela gauzak, baina gero ekintzetan ez da horrelakorik ikusten. Aurreko legegintzaldiko errentetatik bizi dira. Ez dago sormenik, ez eta egitasmo zein ekonomia planifikaziorik. Alkarrekin Soraluze Eginez hain ahulduta egotea horren ondorio da.

Hori bai, estilo zaharreko politikan abilak dira, Sologoen inguruko errotonda egingo dutela esatera ia Diputazio osoa etorri zen eta. Ostera, EH Bilduko zinegotziak abisatzeko astirik ez zuen izan alkateak.

Zure ustez zein dira herriak behar dituen aldaketak?

EH Bilduren diagnostikoa da herri honek aldaketa handi bat behar duela. Horri ez badiogu serio heltzen, herrian bizi-kalitatea galtzeko arriskuan egongo gara. Ez dugu ulertzen Udal Gobernuaren obsesio ia absolutua txukuntasuna izatea. Soraluzen bizi-kalitatea hobetzeko aldaketa estrukturalak egin behar dira, bai lurralde antolaketan, zona degradatuak berrituz; eta bai, eraldaketa sozialean, ahalduntzean oinarrituz.

Horretarako errekurtsioak behar ditugu.

Gipuzkoako kargua bateragarria da herrian EH Bilduren zerrendaburu izatearekin?

Izan beharko du. Nik ardura eskaini zidatenean garbi laga nuen ez nuela asmorik eta gogorik herriko ekarpenak alde batera lagatzeko.

Horrek esan nahi du hemendik bi urtera EH Bilduren alkategai izaten jarraituko duzula?

Hori EH Bilduko kideek erabaki beharko dute, horretarako irekiko den prozesuaren bitartez. Dena den, alkategaiaz hitz egitea baino, garrantzitsuagoa izango da EH Bilduk proiektu sendoa eraikitzea Soraluzerako.

**“Soraluzen benetako
EH Bildu sortzeke
dago oraindik, eta
hori sortzea izango
da gure erronka”**

UNAI LARREATEGI



Eguzkiaren aroa

ARGAZKIA: ION AGIRRE

TESTUA: PELLO SAN MILLAN (BAZTANGO HAIZEGOA)

Ekaina, eguzkiaren gaina, argiaren hilabetea. Gurean bezala, beste herri askotan, 23an San Juan bezpera ospatzen da. Sua pizten da, eta herritarrek erritu zahar bati jarraituz, suaren gainetik egiten dute salto. Festa horretan eguzkiaren aroaren etorrera ospatzen da, udako solstizioa. Eguzkiak urteko egunik luzeena eskaintzen du, eta, suak, eguzkiaren ikur bihurtuz, gaua argitzen du, gau majikoa.





Aldundiak errotonda eraikiko du Irukurutzetako bihurgunean



Aldundiko eta Udaleko ordezkariak Carmelo Mendizabal lantegi inguruan. Atzean, Irukurutzetako bihurgunea.


Ekainaren 21ean Markel Olanok Ahaldun Nagusia eta Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituren diputatua izan dira herrian eta jakinarazi dute irailean hasiko dituztela Irukurutzetako bihurgunean biribilgunea egiteko lanak. Lau hilabete inguru beharko dituzte, eta espero dute urte amaierarako erabilgarri egotea. Aldundiak 465.235,26 euro bideratuko ditu errotonda eraikitzeko.

Agintarien esanetan errotondak herri barruko trafikoa arintzen lagunduko du, eta aukera emango du gaur egun Carmelo Mendizabalen norabidea aldatzeko egiten den “maniobra arriskutsua”

saihesteko. Bestalde, Olanok hitz eman zuen, legegintzaldia amaitu aurretik, Aldundiak Ezoziko futbol-zelairako bidean argiteria ezarriko duela.

Irukurutzeta izenaren jatorria

Errotonda eraikiko duten guneari Irukurutzeta esaten zaio, bertan hiru gurutze daudelako. Javier Elorza historialariak azaldu digunez, 50. hamarkadan, Txurrukengo etxeak eraikitzen zihardutela, zementua garraiatzen zuen kamioi batek istripu larria izan zuen. Ibaira erori eta hiru lagun hil ziren. Euren omenez, hiru gurutze jarri zituzten bide bazterrean, eta, orduetik, Irukurutzeta deitu izan zaio toki horri.



Txurrukengo plaka jartzeko ekitaldia

Txurrukengo bizilagunen ekimenez, eta Udalak lagunduta, uztailaren 15ean, eguerdiko 12:00etan, ekitaldia egingo dute auzoaren izena daraman plaka ezartzeko. Plaka jarri aurretik, aureskua, bertsoa eta kantua eskainiko dituzte izen-aldaketaren zentzua gogorarazteko; ostean, piskolabisa izango da auzotarrendako. Auzoko gazte batek aureskua dantzatuko du.

Sabuako harrespilaren bila

Egunotan, Aranzadiko kideek kata bereziak egiten dihardute Atxolin inguruan Sabuako harrespilaren bila. Barandarianek aipatzen duenez, harrespila hori industu barik laga zuen “oso egoera txarrean” topatu zuelako. Aranzadik datozen asteetan emango du Gizaburuako eta Sabuako indusketetan topatutakoaren berri.

Sagar-Errekako potzurako bidea garbitzen

Debemeneko langileak Sagar Errekako potzurako bidea garbitzen hasi dira, udaran jendearendako irisgarriago egoteko asmoarekin. Alkarrekinen Ibaiak eta Mendiak taldearen proposamenez abiatu dituzte Udalak eta Debegesak lan horiek.



Maria Lourdes Vazquezen balkoia, ederrena

Udaleko Ingurumen Batzordeak balkoi eta leihoetako loreen lehiaketaren bigarren edizioa antolatu du, eta zazpi parte hartzaileen artean, Ezozibideko Maria Lourdes Vazquezen balkoia jaso du lehenengo saria (150 euro).

Bigarrena, berriz, Kalebarrengo Amelia Perezek (75 euro). Lehiaketaren bitartez, Udalak “leiho eta balkoia lorez hornitzeko ohitura berreskuratzen lagundu nahi du, herriko bazterrak kolorez janzteko”.

Badugu taxista berriz



Miguel Angel Avellaneda, uruguaitar jatorriko elgoibartarrak, eskuratu du Juan Jose Cruzen taxi-plaza, eta, ekainaren 1etik, lanean da. Miguel Angelek 44 urte ditu eta esperientzia luzea du gidari moduan: “Uruguain hamar urte egin nituen taxi-gidari moduan. Gainera, kamioilari ere jardun izan dut, Uruguatik Txilera

bidean, Andeetan zehar.” Hizkuntza aldetik, gaztelera, ingelesa eta portugesa menderatzen ditu, eta euskaraz ere egiten du “pixka bat”. Miguel Angelek 24 orduz eskainiko du zerbitzua eta berarekin harremanetan jartzeko telefonoa lehenago Cruzek erabili zuen bera da: 607 22 08 08.

KEXAK, TXALOAK ETA GALDERAK

Zaborrak Txurrukarako bidegurutzean



Herritar batek bere kexua helarazi digu Txurrukako bidegurutzean zaborrak edukiontzietatik gainezka izaten direla salatuz:

“Astea joan eta astea etorri, zaborrez gainezka ikusten ditut Txurrukako bidegurutzeko edukiontziak. Gainera, askotan, zaborra errepede ondoan eta atzeko pinudian zehar zabalduta egoten da. Nazkarria da, literalki.

Zaborra gaika batzeko horren sistema egokiak eskura ditugun garaiotan, tristea ikustea da ikustea zein era narrasean kudeatzen den zaborra Soraluzen eta Debarrenean. Bai lehen eta bai orain.

Desiragarria litzateke, ustez gure ongizateagatik lanean diharduten horiek etorkizunean zaborra hobeto kudeatzeko sistemak ezartzea. Seguruena, lartxo eskatzea izango da.”

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: aldizkaria@pilpilean.com 943 75 13 04

Ermita ondoko teilatua jausi da



Ekainaren hasiera aldera, San Martzial ermitaren ondoko estalpearen zati bat, hegoaldera ematen duena, jausi egin da. Mendebaldekoa, jaietan sua egiteko erabiltzen dena, berriz, zutik dago. San Martzial baserriko Oskar Aldazabalek adierazi digunez, "Jende asko ibiltzen da hemen eta zorte handia izan da inor azpian harrapatu ez izana. Teilatua, itxuraz, ondo zegoen baina begira...". Iraileko jaiei begira, dagoeneko

berba egin du eraikuntza enpresa batekin eta espero du ordurako aldameneko gunea garbituta izango dutela, zutik gelditu den zatiari dagokionez. Estalpea berreraikitzeko aurrekontua ere eskatu du. Zenbatekoaren berri jakitean hartuko omen dute horren inguruko erabakia. Izan ere, San Martzialgo ermita eta bere ingurua baserriaren jabetzakoa da, eta, legez, eurei dagokie bere mantentze-lanen ardura.

Robotikan bada gauza politikan



Hori uste dute aste honetan robotika ikastaroan jardun duten hamazortzi gaztetxoek. Egunean lau orduko saioak egin dituzte robotak muntatu, programatu eta bestelako prozesuak garatzen ikasteko. Robotikarekin batera, animaziozko irudiak eta bideo-jokoak programatzen ikasteko praktikak ere egin dituzte. Datorren astean beste host gaztetxok jardungo dute Debegesak guraso-elkarterekin batera antolatu duen tailerrean.

Soraluzeko hiru gudari omendu dituzte Gernikan

Gernikako hilerriko hobi komun batean lurperatuta dauden 82 gudari omendu zituzten ekainaren 17an egindako Gipuzkoatik Gernikara ekitaldian. Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu zuen omenaldia; izan ere, hobiratutako gudari gehienak gipuzkoarrak dira. Soraluzetarrak ziren hiru: Jesus Eguia Lete (Itxarkundia), Sabin Garitagoitia Larrañaga (Itxarkundia) eta Gregorio Wenceslao Ondarza Maiztegi (Loiola). Sabinen senideak izan ziren ekitaldian.

Debabarreneko turismo-planean, Soraluzeko enpresarik ez

Ekainaren 8an aurkeztu zuen Debegesak Debabarreneko Turismo Plan Estrategikoa. Bertan jaso dituzte 2020ra bitartean bailarara turistak erakartzeko garatuko diren estrategia eta ekimenak. Gaur egun, Geoparkea da Debabarrenera bisitari gehien erakartzen duena; hain zuzen, kostaldeko bi herrien – Debaren eta Mutrikuren – eskaintza sendotu nahi du planak. Horrekin batera, bisitariak barnealdeko herrietara erakartzeko esperientzia turistikoak ere eskaini nahi dituzte; Dolmenen Ibilbidea, esaterako. Azken urteotan, %40 hazi da gure eskualdera hurreratzen den bisitari kopurua eta bailara osoko 35 enpresek dihardute elkarlanean. Oraingoz, Soraluzeko enpresarik ez dago.

Bakardadeari gorazarre



Maialen Lujanbio **Doinua: Hil da Canovas**

Beti estresa buru jatea
ta inertzia zitala,
laban batekin balitz bezala
eten dezagun, ba, hala.
Ibili oinez eta ikusi
paisaia luze zabala,
hartu usaina, sentitu haizea
behatz artean doala,
eta burua hustu dedila
bi begiak bete ahala.

Hustu dedila burua eta
hustu dedila garuna,
ta bolumenez baja dedila
hainbeste ahotsen jarduna:
sare sozialen lagun artea,
famillian oihartzuna...
Isildu denak eta haizetan
hostoen soinua suma,
musika eder zoragarri bat,
ez al da isiltasuna?

Eta ez piztu zigarrorikan
hortan ez galdu indarririk,
eta ez, noski, ez daukazu ez,
mobila piztu beharrik.
Utzi aparte, ez begiratu,
une hontan da alperrik.
Hartu arnasa, ez dezu behar
kanpoko eragin txarrik,
bere buruakin ondo dagona
sekula ez dago bakarrik.

Plazentziatarren boxeo-jaia Miribillan

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI
TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Ekainaren 16an autobus bete zale joan zen Soraluzetik Bilbora; arrazoia, bikoitza: Soraboxeko ikaslea eta maisua jaialdi bereanborrokan ikustea. Julen Gallastegik ezin izan zuen garaipenik lortu bere debutean, baina berak erakutsitako borrokarako gaitasunak ikusmina piztu zuen ikusleen artean. Ixa Rodriguezek, berriz, borrokaldia irabazi egin zuen, itzuli denetik irabazi duen bigarrena.





Egilea: Garbiñe Ubeda (Aiurri)

Soluzioak

plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak

Zeeer?!

Ui, ene! Baina zer demontre dio Maripurtzilek?! Konturatu zara? Alderantziz ari da hizketan... Esaten ari denari taxua hartzen ez badiozu, jarri orria ispiluzaren aurrean eta berehala asmatuko duzu esaldia.



Zuhatzeko etxola

Etxetik gertu, etxolatxo bat egin dute Maripurtzilek eta Pellozirik, lagunekin elkartzeko. Baina, baina, hori da anabasa!

Ea aurkitzen dituzun elementu hauek:



lore gorria



dardoka



tutua edo biberota



erlea

Ea aurkitzen dituzun beste elementu hauek ere:

- Txikilea
- Pelloziriren ordenagailu eramangarria
- Bi tximeleto
- Eskuargi bat
- Bi sagu
- Barraskilo bat
- Igela
- Plastikozko ur botila
- Hontza
- Txerrikumea
- Sugea



Untxiak ez du barazkirik jan nahi eta gorde egin da. Lagundu amari ezkutalekuraino heltzen, belarrietatik heldu behar du eta.

Otordua



Zazpikoa

Aurkitu bi inudien artean dauden zazpi aldeak.



Itzala

Zein da mendigoizaleari dagokion itzal zuzena zortzi hauen artean?



Espera



Txerri gosetiak...

- ... patoloak izaten ditu titiak
- ... inguruan beti euliak
- ... ezkurra amets
- ... amets bitxiak
- ... lotan ematen du eguna
- ... ezertarako denborarik ez
- ... lotan jaten du
- ... platera hutsik
- ... inurriak logun

Ramadan Kareem

Ramadana baraua eta hausnarketa da, musulmanen hilabete santua. Joan den hilabetea sakratua izan da munduko 1.500 musulmanendako; horietatik 32.000 inguru Euskal Herrian bizi gara. Baraua eta meditazioa derrigorrezkoak dira 30 egun horietan, eguzkia ateratzen denetik sartzen denera arte. 30 edo 29 egunetan (ilargiaren arabera) gizon zein emakumeek ezin dugu jan, edan eta harreman sexualik izan egunez, baina guzti horretatik salbuetsita daude pertsona nagusiak, gaixoak, bidaiariak, haurdun diren emakumeak eta bularra ematen dutenak.

Barauaren helburua da erakustea pazientzia eta umiltasuna zer den, eta gogoraraztea zortedunak garela eta laguntza eman behar diogula behar duenari.

Ramadanean familia musulmanaren ohiko ordutegia aldatu egiten da. Gauz jaikitzen gara, eguzkia atera aurretik; gero, egoten gara jan, edan eta erre barik, gaua iritsi arte. Eguzkia ezkututzen denean hausten dugu baraua.

Koranaren arabera, sasoi honetan jaso zituen erlijio zahar honen profetarik handienak, Muhammad-

ek, Allah-en lehen bertso sakratuak, K.O. 610. urtean. *La Mecako* hiri santuan gertatu zen.

Raja Nasir Harremanak

Horra hor euskarazko hitz jator bezain kurioa: harreman; hartu eta eman, bi aditz kontrajarriak, elkarren ondoan ideia bakarra adierazteko. “Hartu”k jasotzea, etekina lortzea edo norberaren alde egitea adierazten du, “eman”ek, ordea, eskaintzean, ekarpena egitean eta besteen alde jokatzean datza.

Gaztelarazko itzulpenak, “relación” hitzak, ezin du hainbeste adierazi. Euskaraz, “harremanak” oreka dakar, hau da, hartu dudan beste eman edo emango dugunaren adina hartu; antzekotasun handiagoa du txinatarren yin-yangaren irudiarekin (orekaren ideiarekin).

Bizitzako une eta esparru askotan ditugu harremanak: jaioberritan, amarekin duguna apurto behar izaten dugu berriak eraikitzeko; umetan, lagunekin era ezberdinetakoak garatzen ditugu (kromo trukean edo borrokan); amodioan eta lanean ere, eman hartuak sortzen eta hondatzen ditugu; horrela, hil arte.

Herritar bezala ere hartu emanak ditugu, noski: diru ordainaren trukean errepideak, eskolak, osasun zerbitzuak e.a. jasotzen ditugu. Egia esanda, dirua kendu egiten digute, automatikoki, guk ezer gutxi eginda; horra hor, nire ustez, herritar batzuek hartzeko eta exijitzeko duten gaitasunaren arrazoia. “Hartukoneukeko Markesak ditugu nonahi. Hutsa eman ez, eta xurgatzeko prest daudenak. Gaztelararen eraginagatik edo, gero eta herritar gutxiago dira harremanak orekatuta dituztenak eta gehiago “relación” berekoia bilatzen dutenak.

Ez, ez naiz diruaz ari; denboraz, dedikazioz edo jarduteaz dihardut. Askok eta askok beraien lanetik irten ondoren, elkarte, klub, talde, herri mugimendu, partidu, sindikatu edo ONGren batean ematen dutenaz nabil, “musu-truk” eskaintzen dutenaz, hain zuzen, bejondeizuela! Herri txiki bat gara eta denon elkar ekinari esker, handiagoa egiten duzue!

Nerea Orbea

aldizkaria@pilpilean.com
[helbidera bidali gutunak](#)

Turismoa Soraluzen

Dolmenen Ibilbidea ezagutarazi ahala, gero eta bisitari gehiago dator herrira, edo, zehatzago esanda, mendigainera. Zer diote eragileek eta herritarrek?



Aitziber Cortazar
DEBEGESAKO
TURISMO SAILEKO
ARDURADUNA

Aurkeztu berri da Debabarreneko 2020rako Turismo Plan Estrategikoa. Helburu nagusia da eskualdeko turismoa era planifikatuan garatzea: Euskal Kostaldeko UNESCOren Geoparkea indartuta eta barnealdeko herrietan produktuak eta zerbitzuak garatuta. Kalitatezko eskaintza orekatua lortze aldera, plangintza honen oinarrietako bat eragile ezberdinen parte hartzea sustatzea da; horren adibide dugu Dolmenen Ibilbidea.



Jurdana Laskurain
TXURRUKA
JATETXEA

Azkenengo urteetan, herriko jendeaz gain, inguruko herrietako jende asko etortzen da gurera, eta zabalduz doa. Mendigainagatik galdetu izan digute, baina asteburuetan ez dugu igarri hazkunderik. Turismoko planean ez dugu parte hartu oraindik, ez dugulako hartu denborarik horretarako, baina etorkizunean interesa dakiguke.

Diabolikua Egilea: P.G.

**Asier
Elizburu**
TURISMOAN
LIZENTZIATUA

Dolmenen ibilbidea ezagutzera datorren bisitari kopurua handia da. Baditu alde onak, esaterako: ingurua ezagutzea eta lanpostuak sortzeko aukera. Hala ere, hor dago mendigaina hondatzeko arriskua ere. Ondo legoke interpretazio aretoen bat jartzea aurkituzten berri emateko. Gainera, herrian badira interes handiko beste txoko batzuk ere; elizako ataria, adibidez.



**Ignacio
Elgeta**
URKIA-ZELAIKO
BAZKIDEA

Gu astebururo joaten gara Urkia-zelaira eta ez dugu igarri aldaketa handirik, txabola inguruan behintzat. Egia da asteburuetan mendigainera auto gehiago doala orain. San Andresen autobusa lagata ere etorri izan da jendea, baina Urkia-zelain ez dira gelditzen. Abuztua txabolan pasatuko dugu eta kontatuko dugu bueltan.



**Nerea
Iñurrieta**

**Hausnarketak
atzerritik**

Askotan distantzia apur bat hartzia biharrezkua izaten da inguratzen gaituen gauzen baliuaz ohartzeko, eta, duda barik, etxetik urrin bizitzia hortan laguntzen dau.

Urte eta erdi daroiat Estatu Batuetan bizitzen eta denboraldi horretan, etxian egondako urtietan egin izan ez doten bidaiak egitteko aprobetxatzen nabil. Ez dot denbora libre gehixago euki, eta poltsikuak be ez dittut betiago, baina jarrera aldatu dotela esan leike. Washington, Chicago, Niagarako ur-jauziak, Toronto, Boston... bisitatu ditut. Planak egitteko, gogua baino ez da bihar. Hemen daukadan denbora ez da luzia eta beraz, ahalik eta esperientzia polit gehienez bete bihar dot bueltarako maleta.

Baina maleta hori eztoz gutziz bete nahi, bueltan noianerako tokixa laga bihar dot. Izan ere, toki ederrez inguratuta gare, askotan ezagutu barik lagatzen dittugunak rutinan murgilduegi gaozelako. Kanpora jun bihar gara, edo kanpotik etorri bihar jaku norbait, gertu dauzkagun parajiak apreziatzeko edota lehenbizikoz aurkitzeko. Etxeko sofak daukan imanetik ihes egin eta gure txokuak disfrutatzeko gogo haundixakin juango naiz bueltan. Ordura arte, aprobetxatu zeuek!

Erbia birpopulatzeko egitasmoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak egitasmoa abiatu du Mendigainean erbiak birpopulatzeko. Erbiak eremu hesitu batean libratuko dituzte, ingurune berrira egokitu daitezten.

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO ARGAZKIA: IÑAKI OLANO (EKOS)

Azken hilabeteotan, herriko ehiztari-talde batek eta Udalak (Aldundiaren laguntzarekin) erbiendako gune hesitua prestatzen dihardute Mendigainean. Hesitu duten eremua Atxolin inguruan dago, udalaren jabetzako pinadi batean, oinezkoen bidetik aparte samar. 200 m² inguruko lursaila da, garo eta almitz-belar ugari duena; beraz, leku egokia da erbia ugaltzeko, jatekoaz gain, harrapariengandik babesteko erraztasuna ematen baitie basoak.

Datozen asteetan, Aldundiko teknikariek erbiak askatuko dituzte bertan. Askatu eta egun batzuetara, babesguneetik kanpora ateratzen lagako diete, ingurua ezagutzen has daitezten. Gero, behatu egingo dituzte, ingurura zer moduz egokitzen diren ikusteko. Iñigo Mendiola teknikariak jakinarazi digunez, hogeitau urte baino gehiago dira Gipuzkoan erbiaren populazioa berreskuratzeko egitasmoak abiatu zirela eta sistema horrek “oso emaitza onak eman ditu”. Bere ustez, arrakasta lortzeko gakoa herriko ehiztarien, Udalaren eta herritarren arteko elkarlanean dago, “denen artean gunea babestu eta erbiak errespetatzea lortzen badugu, emaitza ona izango da”.

Urte asko herrian desagertu zela

Urte asko dira herrian erbia desagertu zela. Ez dago galdu zireneko data zehatza zein den esaterik baina baserriarren testigantzei jaramon eginda, badakigu gerra ostean, oraindik ere, baserrietan erbiak harrapatzen zituztela, neguan ere bai, dagoeneko

debekatuta zegoen arren. Adituek diote, hain zuzen ere, neurrigabeko ehizak desagerrarazi zuela erbia inguruetatik. Zorionez, ale batzuek iraun zuten Urbian eta Aralar inguruetan, eta, orain, berriz herrira ekarriko dituzte, Medigainean ugaltzeko.

ERBIAREN EZAUGARRIAK

Erbiak oso azkarrak dira. Erbi batek, beldurtu eta ihesari ekiten dionean har lezake 70 km orduko abiadura eta egin ditzake hiru metro baino gehiagoko jauziak. Gainera, belarrak samurrena jatearren, gauza da gau bakarrean 15 kilometroko bidea egiteko.

Erbiak, untxiek ez bezala, ez dute zulorik egiten kumeak izateko: erbikumeak, jaiotako, gai dira korrika egin eta euren kasa elikatzen. Bost hilabeterekin hartzen dute erbi helduaren tamaina, eta, urtebeterekin dira gai ugaltzeko. Ugalketa sasoia uztaile erdi aldera hasten da, eta kumeak abuztu amaiera aldera izaten dituzte, 42 eguneko kumaldiaren ostean. Gehienez ere, hiru kume izaten dituzte.

Bestalde, erbiak, askatasunean, bederatzi urtez bizi daitezke eta hamabi urtez, harrapariengandik babestutako gune batean.



Erbia, erne, Aldundiak ezarritako babesguneetako batean.



Mendigainean hesitu duten gunea.

Iñigo Mendiola

“Mendigaina leku egokia da erbia ugaltzeko: basoa, belardiak, populazio gutxi...”

Iñigo Mendiolari galdetu diogu erbiak birpopulatzeko egitasmoaren berri. Bera da Gipuzkoako Foru Aldundiko Basanimalien eta Landareen zerbitzuko burua eta egitasmoaren arduradun nagusietakoa.

Noiz hasi ziren erbia birpopulatzeko egitasmoak Gipuzkoan?

Lan honekin hasi ginen 1994an. Badira dagoeneko 20 urte baino gehiago. Ikusita erbia zein egoeretan zegoen, plan bat jarri genuen martxan Gipuzkoan erbia indartzeko.

Erbia desagertzeko arriskuan zegoen?

Bai, erbia ia desagertuta zegoen garai hartan, lehenagotik. Ikerketa bat egin zen 1985ean espezieen egoera zelakoa zen ikusteko: tartean, erbiarena. Ikerketaren arabera, erbiak Aizkorrin, Aralarren eta beste gune jakin batzuetan baino ez ziren gelditzen. Oso egoera larrian zegoen.

Zerk jarri zuen erbia desagertzeko arriskuan?

Garai batean ehizak presio handiegia eragin zuen erbiaren aurka. Askok urritu ziren, eta oso zaila zen errekuiperatzea.

Beraz, orain, ehiztarietako neurriak ere ezarri beharko dira, ezta?

Bai, noski. Plan hauek ehiztarietara batera egiten ditugu beti. Ehiztarien Federazioak plan guztietan parte hartzen du; baita lekuan lekuko ehiztarietara ere. Akordio bat egiten dugu ehiztarietara: inguru horretan nahikoa populazio dagoela ikusi arte, ezin da ehizan egin.

Horretarako, kontrolak egiten ditugu ehiztarietara batera.

Zela portatzen dira ehiztariak?

Denetik dago, baina emaitzak ikusita, pentsatu behar dugu

ehiztari gehienak ondo portatzen direla. Ze, azken urteotan erbia ia Gipuzkoa osora zabaldu da, eta, hori, duela hogeita urte, asko esatea zen. Orain, falta da kostaldean ugaritzea.

Zein ezaugarri bete ditu leku batek erbia ugaltzeko?

Baldintzetako bat da ehiztariak eta udala ados egotea. Ikusi behar dugu interes bat dagoela eta jendea ez dagoela kontra; ostantzean, ez du merezi halako egitasmo bat martxan jartzea. Soraluzeko Mendigaina leku egokia da erbia ugaltzeko: basoa, belardiak, populazio gutxi...

“Aukera paregabea dugu inguruotan aspaldi galdu zen espezie bat berreskuratzeke.”

Soraluzeren aurretik non ezarri dituzue antzeko egitasmoak?

Guztira, Gipuzkoako hamalau tokitan askatu ditugu erbiak. Hasi ginen Pagoeta inguruan, Aiako Harrietan... Hortik joan gara hainbat lekutara zabaltzen: Erniora, Izarraitzera ... Iaz Elosu aldean hasi ginen, eta iruditu zitzaigun egokia Soraluze aldera ere zabaltzea, mendikate guzti horretan erbia sartu eta indartu dadin.

Zer sistema erabiltzen duzue birpopulatzeko egitasmoetan?

Erbiak Altsasuko haztegitik ekartzen ditugu. Haztegitik zuzenean mendian askatu beharrean, itxitura batean sartzen ditugu, bertako klimara egokitu daitezen, eta haztegitik janariarekin batera, inguruko ere jan dezaten. Egundakoz buruan, itxitura zabaltzen



Iñigo Mendiola.

diegu, kanpora eta barrura nahieran ibil daitezten.

Zabaltzen duzuen erbi-mota, lehen hemen zegoen bera da?

Bai, erbi europarra da. Urte hauetan, Altsasuko haztegitan lan handia egin dute. Bertako erbiak hartu zituzten mendian eta haztegitara ohitu zituzten, bertan ugaltzeko. Eta hori, oso lan zaila da.

Ez dago konejuak bezala plaga bihurtzeko arriskurik?

Ez, horrelakorik ez da gertatuko. Erbia ugaltzea oso zaila da, denbora asko behar izaten dute. Oso garestiak dira.

Zenbateko kostua izango du egitasmoak?

Datozen urteetan libratzen dugun erbi kopuruaren arabera. Oraingoan, ezin dugu zehaztu egitasmoak zein kostu izango duen, baina esan dezakegu garestia dela.

Zein mezu helaraziko zenieke herritarrei?

Guneak errespetatzen baldin badira, emaitzak oso onak izango dira. Nik herritarrei eta ehiztarietara eskatuko nieke laguntzeko guneak zaintzen. Aukera paregabea dugu inguruotan aspaldi galdu zen espezie bat berreskuratzeke.

IZKUGIRRE
Igeltzeritza



Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreformaak • Era guzietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913 - 649 867 280

KM design

Kirru Muntaiak

943 76 99 85

km.muntaiak@yahoo.es
www.kmdesign.es

Pol. Amilago 5
BERGARA

- Diseinu eta Fabrikazio lanak
- Sukaldeak
- Horma-ardairuak
- Logelak
- Zonak
- Aleak...

- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak

Hortz klinika

27 urteko esperientzia

Inker Alamo K.2. 46.000.500
Kalia Cuatrecasas Obitxeraga K.2. 46.001.140

Itxir: giza arretza, odontologia orokorra, protesis iraunkor eta mugikor, ortopediana, ortodontia, iparrak, estetika...

Erreal 1 - Tel.: 943 75 16 13



MABEL
NEW PAIN DEIGIA

- Reamintzako keratina tratamendua
- Depilazioa
- Itxir-sustrairik gabeko permanentea
- Makilajea
- Manikura erdiraunkorra
- Solariuma

Erreal 1
Tel.: 943 75 14 89



Etxabe Harategia

- Etxabe eramaten dira
- Enkarguak hartzen dira
- Soralezko basementako produktuek
- Etxeko irigaki eta txistotarrak

Etxaburuta 5
Larrea, 943 75 23 75



Belarrak Landa eta belardanda

Loreak, etikagai ekologiko eta osasungarriak, kosmetika eta etxeko garbitzeko produktu ekologikoak

Etxeko eramateko zerbitzuak
Enkarguak egiten dira
Tel.: 943 75 30 31



P Iragarri hemen zure negozioa

Pil-pilean herri komunikabidea
686 028 946 (Gaizka) · publizitatea@pilpilean.com

Kontulan ABOKATUA

Errentea, zitargenak, Administrazio lanak
Tratamendu burokratikoak Lan-arloko aholkularitza
Erresena kontuztutza/Idulazioak Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. era. 20190 Sorluze
Tel: 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz klinika, punta-puntako teknologekin lan egiten dugu. Cad-Cam sistema berritzailea erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe.kl@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenerdik ostiralera
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



BOLIA
TABERNA

Pirxoak, ardoak, korribetak
Gazte-giroko festa
Tel.: 943 02 95 02



Soraluzeko Kooperatiba Elkarteak
1910etik zaharrik

janari denda, erropak, etxeko tresnak, etxera eramateko zerbitzua

Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45

Astelehenerdik ostiralera:
09:30 - 12:30 eta 15:00 - 19:45
Larunbetak: 09:30 - 13:00



Wendata

Enkarguak egiten dira
Eramateko prestotzen dira
Menu berrietan enkarguak

Tel.: 943 25 74 52 / 680 75 40 60



MENDIZABAL
okidegia

Ogia - Prentsa - Gogorak

Astelehenerdik ostiralera:
09:00 - 13:15
17:00 - 20:00
Larunbetak eta igandeak
08:00 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99



Euskalzaletasunaren alde:



Debarroko txapela Soralezera



Atxotegi eta Bolinaga txapela jantzita, gustura.

Aitor Atxotegi eta Ibai Bolinagak irabazi dute Debarroko 50. Pelota Txapelketa, finalean Eneko Muguruza eta Beñat Iñarra bergararrek osatutako bikotea garaitu eta gero. Gainera, Atxotegi izendatu dute txapelketako pelotaririk onena.

Oñati, Bergara eta Soralezeko klubetako bikoteek jardun zuten lehian, eta, azkenean, klub bakoitzak garaipean bat lortu zuen: Oñatik kadete mailakoa, Bergarak jubenetakoa eta Soralezek nagusia.

Ander Sanchez eta Joel Donoso saritu dituzte



Judoka gazteak lasai, erakustaldiaren ostean.

Maiatzean eta ekainean, Aretxabaleta eta Ondarroan egin diren erakustaldietan, elkarrekin parte hartu dute Ander Sanchez eta Joel Donoso judoka gazteek, eta bietan

saritu dituzte: Aretxabaletan, bigarren postuan sailkatu ziren, eta, Ondarroan, lehenengoan. Ukaldi judo taldeko kideak dira biak.

Pelota txapelketako finala

Asier eta Iñakiren omenezko XVI. pilota txapelketako finalean Jon Gallastegi eta Ander Oñatek jokatuko dute Ander Heriz eta Josu Unanueren aurka. Finala uztailaren 8an jokatuko da, arratsaldeko 19:00etan, San Andresko frontoian. Aurretik 3. eta 4. postuak erabakitzekeo partiduak jokatuko dituzte: Argoitz Ariznabarreta eta Rober Gomezek Koldo Heriz eta Jon Heriz bikotearen kontra.

Emakume pilotariak San Andresen

Uztailaren 9an, eguerdiko 13:00etan, Nagore Aramendi eta Oihana Orbegozok Eneritz Arrieta eta Alaitz Badiolaren aurkako partidua jokatuko dute San Andresen.

Iñaki Ruizen omenezko VI. lasterketa

Uztailaren 9an, goizeko 10etan hasita jokatu da Iñaki Ruizen omenezko lasterketa. 21 kilometroko ibilbidea izango du eta 1.000 metroko desnibela. Lasterketaren prezioa 5€koa da (10€-koa lasterketaren egunean). Izen ematea www.kirolprobak.com webgunearen bitartez egin behar da.

AURREZTU ENERGIA

Beratu ura eguzki lepeakin edo oliarekin

fontaneria
San Andres
Iturgintza

629 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

SUMA
basolanak

TMUG, 635 71 34 08

baso garbiketak eta entresakak
zortzi laguneko taldea zure zerbitzura



TXOKO
KAFETEGIA

Eguneko menua, razioak, plater konbinatuak, hamburgesak, ogitartekoak, pizzaak...

Kalebarreneko kafe kartolan
Tel. 943 75 17 89

Enkarguak egiten dira

KLB6

Kalearen 6
943 57 74 28
Makila-eta-makila modu guztia

Facebook icon

Logo: **Biga Joana**, **IBLENO**, **THEZ**, **ESKIBO**, **VERO MODA**



TXURRUKA
JATETXEA

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburutako menu berezia
Karta
www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81



Jatearen plazerra, bertatik bertara

Batzoki

eguneko menua, asteburuetako karta eta razioak
ogitartekoak eta hamburgesak enkargu bereziak
Berrak 943 75 20 55

Basila eta lagun arteko bazkariak



JUAN MARI
ARRANDEGIA

Arnas freskoak
Etxera eramateko zerbitzua
Enkarguak hartzen ditugu

943 75 24 40
MERKATO-PLAZA



EDURTZA
taberna

Ogitartekoak, razioak, hamburgesak, pinboak eta pizza
Pisatuta tortilla egiten dira enkarguz

Santa Ana 18
Tel. 943 75 13 83



MGS
COMPLEX

ASEGURU KONTZENTRATUA, EFIKAZIA HANDIENA DUENA

Erremediorik fidagarriena aurreikusitako gabeko gertaeren aurrean

DESKONTU GARRANTZITSUAK
EGUN KONTZULTA ZURE BI/APTEKARIARI

MGS
Seguros

LOLI NIEVAS
Astelehenetik ostiralera: 10:00-13:00 eta 17:00-20:00
Santa Ana 13
Tel.: 943 75 14 57
Mug.: 646 522 659

Diagram showing a hand pouring MGS COMPLEX powder into a glass of water. Labels: *Aurrezko produktua*, *Autu aseguruak*, *Ossatu aseguruak*, *Etxe aseguruak*, *eta ezker gehiago...*





Azoka egingo da San Andresko jaietan



Ganadu azoka izango da nobedade nagusia aurtengo San Andresko jaietan. Auzoko hainbat baserritatik eramango dituzte animaliak azokara: Guenetxetxo (astoa), Obe (behiak), Osuma (behiak), Barrenetxe (txerriak, antzarrak, ahuntzak), Iriarte-gain (zaldiak), Zabaleta (ardiak), Ezenarro anaiak (pottokak)... Animaliekin batera, Etxebarrikoek ikusgai jarriko dituzte baserriko tresnak, eta Juan Kruz Arizaga Kortak arozgintzako erreminta-bilduma. Gainera, azoka girotzeko, bertsolariak eta trikitalariak izango dira goiz osoan zehar.


Hiru eguneko jaiak

Azokarekin batera, San Andres jaietako ohiko egitaraua izango da aurtuen ere. Jaien hasiera iragartzen duen kanpai buelta barixakuan joko dute, lizar arbola altxatu ostean. Zapatu arratsaldean, pelota txapelketako finalak jokatuko dituzte eta afal-ostean, Bide Batez erromeria taldeak joko du. Domekan, Iñaki Ruizen lasterketa hasiko da 10:00etan, meza 12:30ean eta emakumezkoen pelota partiduak 13:00ean. Arratsaldean, umeendako zezentxoak izango dira 18:00etan eta bola jokua 19:00etan. Astelehena auzotarrendako eguna

izango da, Laja eta Lutxurdiok alaituta.

Azpimarratzekoa da, hiru egunetan bertsolariak izango direla: Iñaki Murua eta Millan Telleria zapatuan, Aitor Mendiluze eta Agin Laburu domekan, eta Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso astelehenean.

Expo Kontrargi erakusketa



Kontrargi argazki-kolektiboak argazki erakusketa antolatuta du uztaileko. Bertan, kolektiboan parte hartzen duten sei argazkilarik 36 argazki erakutsiko dituzte, gai librean ateratakoak (A. Arizaga, F. Oregi, E. Uzin, J. Mendikute, J. Ruiz eta M. Valero). Erakusketa ikusgai izango da kiroldegian, uztailearen 4tik 22ra bitartean.



PIL-PILEANEN KAMISETAK SALGAI

ESKATU ZUREA!



**egiteko gogoak
batzen gaitu I**



**egiteko gogoak
batzen gaitu II**



kukumixo



**azkenengo azeitunia
plaentxiarrana**

**Estuak eta zabalak,
neurri guztietakoak**

Kukumixokoak 10€ (bazkideek 5€)
Gainontzekoak 15€ (bazkideek 10€)

**Eskaerak
egiteko**

pilpilean@pilpilean.eus
943 75 13 04 / 605 706 086

IÑAKI RUIZ MENDI LASTERKETA

**uztailak 9
10 etan.**

SAN ANDRES AUZOA

SORALUZE




21 KM / 1000m, +

wikiloc [iñaki ruiz mendí lasterketa](#)

[iñaki ruiz mendí lasterketa](#)


izen ematea

www.kirolprobak.com
edo karreraren egunean



Ane Osoro

Soraluzetik Edinburgora (Eskozia)



TESTUA: EGOITZ UNAMUNO
Ane Osoro Soraluzetarrak hiru urte daramatza Eskoziako hiriburuan bizi izaten. Turismoko masterra egitera joan zen urtebeterako, baina, amaitu zuenean, turismo-agentzia batean lana aurkitu eta bertan gelditzea erabaki zuen.

Zelakoa da Edinburgo?

Oso iluna da eta bizkor iluntzen du. Hala ere, oso segurua da eta eroso bizi izateko. Giro lasaia du eta kulturalki oso dinamikoa da. Hirian bost unibertsitate daude eta musika zein antzerki festibal asko egiten dira.

Zein desberdintasun igartzen dituzu eguneroko bizimoduan?

Batez ere, ordutegiari dagozkionak. Hemen bazkal ordua 12:00etan da, eta afal ordua seiretan. Gaez, ateratakoan, hiruretarako etxeratzen dira. Hala ere, alkohol-kontsumoa handia da. Edateko modua ezberdina da, ez horkoa bezain soziala.

Ingelesen eta eskoziarren artean badago ezberdintasunik?

Eskoziarrak pentsatzen dutena esaten dute, nahiz eta gogorra izan. Ingelesak pasiboagoak eta erasokorragoak dira.

Hizkuntza aldetik zein da egoera?

Ingelesa berba egiten dute, eskoziako dialektoan. Eskoziara eta gaelikoa ere bai, baina herri txikietan bakarrik.

“Brexitari buruzko erreferendumaren ostean, eskoziar asko damutu egin dira independentziaren aurka bozkatu izanaz”

Zertan egiten duzu lan?

Gure enpresak bisita gidatuak antolatzen ditu Irlandan, Londresen eta Eskoziari. Nik bisita pertsonalizatuak antolatzen ditut.

Gomendatuiguz Eskoziari bisitatzeko leku bat.

Nik gomendatzen dut Highlandsak bisitatzeko, iparraldean. Oso handia da, ederra, eta ez da jende asko bizi.

Zela bizi duzue Brexitarren kontua?

Nire lagun asko europarrak dira eta nahiko arduratuta gaude denok, inork ez duelako ezer esaten. Ez dakigu gurekin zer gertatuko den.

Baduzu asmorik Soraluzera bueltatzeko?

Bai, egunen batean, epe luzera. Ez daukat hemen bizitzen gelditzea asmorik, baina ikusiko dugu Brexitarrekin zer gertatzen den.

1. Glen Etive-n, enpresarekin egindako bidaietako batean.
2. St Andrewseko katedralean.
3. Lagunekin, nire urtebetetzea ospatzen.
4. Zutarrak Eskoziari iparraldeko Orkney irletan.

Mende Erdiko ibilia



ARGAZKIAK: **LAGUN MAITEAK**
TESTUA: **EGOITZ UNAMUNO**

Angel Luis eta Nikolas Mendia aita-semeekin egin dugu hitzordua *Lagun Maiteak* elkarteko kontuen berri jakiteko, eta kontaktu digute kontu mordoxka bat.

Lagun Maiteak elkartea izen bereko koadrilak eratu zuen 1967. urtean. Lehenengo bilera Allegro elkartean egin zuten hogeit hamar lagunek. Handik lasterrera, beste koadrila bat sartu zen elkartean, *Beti Asarre* koadrila. Hala ere, *Lagun Maiteak* izena mantendu zuten, bistakoa den arrazoiengatik. Pentsa, bi izenak elkartu izan balituzte, elkartearen izena honako hau izango zen: *Lagun Maiteak Beti Asarre*. Gordinegia dirudi, ezta?

Aukeratu zuten lokalak Gabolats kaleko 12. etxarean sotoan zegoen. Lantegia zegoen aldean berrogeita hamar lagunendako jantokia egokitu zuten, eta Ziriako

Aldazabalen ikaztegia zegoen lekuan, sukaldea. Hain zuzen, bertan aurkitu zuten hauspo erraldoia, gaur egun elkarteko paretean zintzilikatuta daukatena.

Hasierako urteetan, berrogeiren bat bazkide ziren guztira. Hogeitamar urteko mutil gazte, ezkongabeak gehienak; baina, ordurako, diru pixka bat bazutenak. Izan ere, garai hartan, gazteak hamalau urte ingururekin hasten ziren lanean eta, hogeitamar urterako, hilero jornal “polita” ekartzen zuten etxera: “egunian hamar edo hamabi ordu egiten ginduaz lan”, dio Mendia aitak.

Sasoi hartan, denbora asko ematen zuten elkartean. Angel Luisek gogoan du, “atsaldetan batzen ginduaz lanetik urten eta meriendatzera, ta gero txikiteora”. Orduan, ohitura zen egunean hiru aldiz txikiteoan ibiltzea: eguerdian, bazkal ostean eta arratsaldean. Gainera, barixakuero afaria egiten

zuten, eta bazkideen urtebetetzeak ere ospatzen zituzten. Urtean zehar, ohitura zuten afaria egiteko Gaztañerre egunean ere (gaur egun ere bai). Edozein aitzakia zen ona elkartean lagun artea batzeko.

Elkarteko bazkide denak gizonetzkoak ziren, noski. Emakumeak sar zitezkeen elkartean, baina, beti ere, gizonetzkoarekin batera. Sukaldean ez. Emakumeek debekatua zuten sukaldean sartzea. *Lagun Maiteak* bazkide egin zen lehen emakumea Yolanda Merino izan zen, 2002. urtean, bere aita hil ostean. Orduetik aurrera, emakumeak normaltasunez egin dira bazkide elkartean.

Gaur egun, hogeitamar bazkide dira, hilero 15 euroko kuota ordaintzen dutenak, eta, oraingoz, ez dute bazkide gehiago egiteko asmorik.

Uztailaren lehen elkartearen 50. Urteurrena ospatuko dute.

Bazkideen bazkaria egingo dute eta bertara gonbidatu dituzte elkartearen sortzaile izan ziren bazkideak ere, gaur egun, ohorezko bazkide direnak. Guztiek elkarrekin ospatuko dute mendeko ibilbidea, eta etorkizunean egiteko dutena.

EGITARAUA

Uztailak 1, zapatua

- 11:30ean Salda eta txorixoa (osasan-etzeko arkupean).
- 12:30-14:30 Puzgarriak umeendako (kiroldegian).
- Txaranga, herriko kaleetan zehar.
- 13:00etan Bazkideen argazkia (elkarteko atean).
- 14:30ean Bazkideen bazkaria (elkartean).

Irailak 23, zapatua

- Ardo-dastaketa eta mus-txapelketa irekiak.



Lagun Maiteak futbol-taldea.

Goian ezkerretik eskumara:

Antonio Ansola, Amuategi, aurreko mutikoa Fabian Gonzalez, Antonio "Pototo", Victor Iriondo, Pablo Larrañaga, Enrique Arriola, Enrique Placencia, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, Carmelo Merino, (atzean) Daniel Mugica, Isidro Soba, Denis Lluch, atzean, Domingo Manzanero, Julio Ucin, Moises Arizaga, atzean Narciso Larrañaga, Eustaquio Altuna eta Ovidio Cano.

Behean ezkerretik eskumara:

Iñaki Oregi, Francisco Alberdi, Miguel Bengoetxea, Miguel Gallastegi, Manuel Etxabe, Marino Azcona, Santiago Alberdi, atzeko mutikoa Miguel Angel Plazaola, Francisco Alberdiren anaia.



Elkartek antolatutako mus txapelketa frontoian.



25. urteurreneko bazkaria elkartean.



Angel Luis argazkiari begira.



Urteurreneko logotipoa. Jon Gabilondo bazkideak egin duena.

ZORION AGURRAK




Garazi Aizpurua
Ekainaren 12an, 14 urte. Orain arte bezain alaia izaten jarrai dezazula. Etxekoak.



Yago Donoso
Ekainak 23an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekoen partez.



Enara Garitano
Ekainaren 9an, 8 urte. Zorionak politxor! Muxu bat etxekoen partez.



Enara Garitano eta Irati Unamuno
Ekainaren 9an eta 10ean, 8 urte. Zorionak bixontzat bihotz bihotzez!



David Fernandez Rascon
Uztailaren 2an. Zorionak! Etxekoen partez.



Paule eta Lide
Ekainaren 25ean, 2 urte, eta uztailaren 1ean, 7 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko sorginei.



Antxon Zubiaurre
Uztailaren 8 an, 13 urte. Zorionak! Jarraitu horrela! Etxekoen partez.



Pakita Unanue Lete
Ekainaren 29 an, 89 urte. Zorionak! Jarraitxu birramama, amama eta ama bikaina izaten.

Zoriontzeko, esker ona adierazteko, jaiotzen berri emateko...
605 706 086
(deitu edo bidali whatsapp-a)
aldizkaria@pilpilean.com

OROITZA

OROITZA



Kiraren oroimenez

Gure laguna, gure zaintzailea. Inoiz ez zaitugu ahaztuko. Maite zaitugu!

Zure familia.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Jaiotakoak

Uxue Oregi Latasa

Hildakoak

Miren Arana Larrea
Maria Aranzazu Echave Churruca
Ion Cerrejon Epelde



Fernan Oregi

Uztailak 2an
Jarraitu horrela,
txabalote.... Alaia eta
jatorra izaten.
Maitte maitte
zaitugu!



Xiker Garro

Uztailak 15ean, 9
urte. Etxeko mutil
koxkorra. Muxu bat
etxeko sorginen
partez.



Zaloa Garcia Rodriguez

Ekainaren 24an, 9
urte. Muxu haundi
bat eta jarraitu
orain arte moduko
sorgiña izaten.



Mireia Lamariano

Ekainaren 21ean, 26
urte. Segi zure
alaitasunaz jendea
pozten. Maite zaitugu!
Etxekoan partez.



M° Isabel Gil Muñoz

Uztailak 1ean, 47
urte. Zorionak polit
hori! Muxu handi
bat etxekuen partez.
Maite zaitugu.



Unai Sanchez Gonzalez

Uztailaren 4an, 2
urte! Zorionak
maitia! Familiaren
partetik muxu handi
bat, maite zaitugu!

ESKELAK

OROITZA	
<h2>Jon Cerrejon Epelde</h2> <p>2017ko ekainaren 11n hil zen.</p>	
<p>Zu bezain bereziak zurekin emandako egunak. Gurekin betiko zure tango bihotza.</p>	
<p><i>Kuadrilako lagunak</i></p>	

OROITZA	
<h2>Jon Cerrejon Epelde</h2> <p>2017ko ekainaren 11n hil zen.</p>	
<p>Norbaitek guregandik gazterik eruan, baina beti guregan izango goguan,</p>	<p>zintzoki jokatuaz lurrean munduan, beste izar argitsu bat daukagu zeruan.</p>
<p><i>Sendia</i></p>	

IRAGARKI LABURRAK

Lan-eskaintza

Herriko enpresa batek CNC
tornuentzako tornulari egokitzaila
eta doitzalea behar du (arduratsua
eta dinamikoa). Beharrezkoa da
erreminten zorrote- prozesuak,
planoen interpretazioa eta ebaketa
baldintzak ezagutzea. Bidali
curriculumak 50. postakutxara.

Lan-eskaria

Neska euskalduna ospitalean gauak
pasatzeko prest. Tel. 688 639 371
(Iratxe)

SAN ANDRES AUZOKO FERIXIA



UZTAILAK 8, ZAPATUAN

10:00etatik 14:00etara

Auzoko ganaduen erakusketa: txerriak, pottokak, zaldiak, astoak, behiak, umeentzako ponniak, ahuntzak, antzarrak, oiloak, etab.

ERREMINTXAK arotz eta baserri-lanetarako.

Barazkiak, ogia eta lorak.

Giroa alaituko dute **Iñaki Murua eta Millan Telleria** bertsolariek, trikitalariek in batera.

Egun guztian zehar taberna martxan egongo da.

Antolatzailea: San Andres auzoko elkarteak eta baserritarrak.

Laguntzailea: Soraluzeko Udala eta Debemen

Oharra: San Andres elkarteak ez da gerta datezkeen ezbeharren kargu egingo.



Erremintak
Pentsuak

Fitosanitarioak
Landareak

BELAI TZ

NEKAZAL ETA INDUSTRI HORNIGAIK
SORALUZE www.belaitz.com 943 75 18 81